24 ARABA

Nerbioi ibaiaren ur-jauzia

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

2,1 km

40 min

Udalerria:
Amurrio
Hurbileko herria:
Delika / Berberana

Ibaia:
Nerbioi

Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo

846 m | 16 m
817 m | 40 m



Ingurumen-garrantzia

Santiago mendia, 1996an Natura Monumentua izendatuta, izena hartu zuen Santiago bidearen erromesen ohiko pasabide izanagatik eta Lengrerizeko Santiago monasterioa hartu izanagatik. Nabarmentzekoa da ibilbidean dagoen kontrastea: klima atlantiko eta mediterraneoaren arteko trantsizioaren ondorioa, non urak zizelkatu duen kareharrizko mendilerroa haitzuloak, leizeak, dolinak eta lapiazak sortzeko. Geologia eta geomorfologia aldetik ere interes handia du inguruak. Adibide gisa ditugu Urduña mendateko ipar aurpegiaren kareharrizko labarrak eta haraneko bista zoragarriak. Ibilbidean pagadiak dira nagusi, ikusgarriak batez ere, udazkenean; nahiz eta ez diren gutxi hurrengoak: aginak, elorri zuriak, arteak eta erkametzak, belardiz inguraturik. Faunari dagokionez, harrapari espezie askoren bizitokia dugu: belatz handia *(Falco peregrinus)*, arrano txikia (Hieraaetus pennatus, arrano sugezalea *(Circaetus gallicus)*, sai zuria *(Neophron percnopterus)* eta, ugari, sai arrea *(Gyps fulvus)*. Baina, ibilbide honek erakarri egiten du berrehun bat metro behera amiltzen den ura ikusteko.

Nerbioi ibaiaren ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Nerbioi ibaiaren ur-jauzia Arabako Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko koadrantean dago, Aiaraldea eskualdeko Amurrio udalerrian.
Heltzeko, Urduñan hasiko gara, A-2625 errepidetik edo CL-625 Burgosko Berberanatik.
Batetik zein bestetik, Santiago Mendiaren Natura Monumentuaren eremuraino heldu behar dugu, Burgos eta Euskal Herriko mugan, eta gero Santiago gotorlekutik hasten den pistan zehar jarraituko dugu. Inguruetan aparkaleku nahikoa dago.
Aparkalekutik, pistaren ezkerraldean eta Monumentuaren etxearen aurrez aurre, bi kilometro inguru egin beharko ditugu behatokira heltzeko. Ibilbidean zehar, Salvada mendilerro malkartsu eta karstifikatuaren ertzeraino heltzen den pagadi bikain batek alaituko digu bidea.
Pistak ezkerretara egin baino lehen, eta zuhaiztia utzi aurretik, eskuinetara otso baten eskultura bat eta antzinako otso zulo baten aztarnak ikusiko ditugu. Pistatik jarraituko dugu, eta bostehun bat metro egin eta gero, ur-jauzira helduko gara.
Bertatik, harrizko anfiteatro zoragarri batean berrehun metro behera jausten den uraren ikuskizun aparta gozatu ahal dugu. Inondik ere, Europako ur-jauzirik ikaragarrienetakoa da.
Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina euri sasoian eta elur urtzean dago zoragarri ur-jauzia. Udazkenean, bestalde, eremuko landare-estalkiaren kolore horizta eta okre guztiak gozatzea dugu.

Deskargatu ibilbidea:

KML GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Wikiloc

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Nerbioi ibaiaren ur-jauzia

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Nerbioi ibaiaren ur-jauzia

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA